Astekaria

# BARREN

elgoi

1995eko abuztuak 22 / 118. zkia.




TXENTXO



MAPFRE
ASEGURU ETXEA
*Jai zoriontsuak elgoibatar guztoi!*
San Frantzisko 40 - ☎ 74 05 82 - 20870 ELGOIBAR

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
ARGITARATZAILEA:
Elgoibarko Izarra.
LAGUNTZAILEA:
Elgoibarko Udala.
ZUZENDARIA:
Ainhoa Lodoso.
ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:
Andres Alberdi, Izaskun Elizburu.
KAZETARIAK:
Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.
MAKETATZAILEA:
Maite Rementeria.
PUBLIZITATEA:
Nekane Etxaniz.
ADMINISTRAZIOA:
Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK:
Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Belen Arrizabalaga, Mikel Artola, Mikel Cornejo, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maite Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Korta, Imanol Larrañaga, Antonio Matias, Susana Mujika, Maite Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.
BANAKETA ARDURADUNA:
Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA:
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)
TIRADA: 3.500 ale
LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92
ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## ZENBAT BURU

### HAINBAT ABURU

# Nire heroia telebistaz

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Foru Aldundiak eta Elgoibarko Udalak diruz lagundutako aldizkaria*




# BERISTAIN

## EDARI BANATZAILEA

**Iñaki ☎ 74 38 27**

*Ondo pasa San Bartolomiak!*

*Vina Nerea,*
*txikiteorako zure*



AGUAS

KELER 18 DE LUXE BEER

RAM

# ELGOIBARKO UDALAK
# SAN BARTOLOME
# JAI ZORIONTSUAK
# OPA DIZKIZUE
# ELGOIBARTAR GUZTIOI



ELGOIBARKO UDALA

# ELGOIBARKO TAXISTAK

**GELTOKIA** ☎ 74 08 98



**Victor Gonzalez** ☎ (908) 77 26 31



**Fernando Moreno** ☎ (908) 77 12 02



**Genma Jaio** ☎ (908) 67 12 96



**Jose Luis Bollar** ☎ (908) 57-04 56




**Jorge de la Merced** ☎ (908) 67 19 67



**Sabin Beristain** ☎ (908) 67 63 67




**Kontxi Urain** ☎ (908) 17 89 56

*Ondo pasa San Bartolome jaiak!*

# KIROL IKASTAROAK

**OLAIZAGA KIROLDEGIA**

*irailetik aurrera*

**IGERIKETA IKASTAROAK**
Irailaren 11tik aurrera





**AQUEROBIC**
Irailaren 4tik aurrera



**IGERIKETA ESKOLA**
Irailaren 11tik aurrera

**MANTENU GIMNASIA ETA AEROBIC-a**
Irailaren 5etik aurrera

**KARATE**
NAGUSIAK: Irailaren 4tik aurrera
HAURRAK: Irailaren 11tik aurrera
4-7 urte bitartekoak urrian

Pisu, koordinazio,... arazoak dituztenentzat
**GIMNASIA EGOKITUA**



- SAUNA
- MASAIA
- SQUASH
- IGERILEKUA

**ZATOZ**

**MATRIKULA ZABALIK**

San Roke, 1 - ☎ (943) 74 13 61

**Ekin kirolari**

- AEROBIC
- KARATEA
- FRONTOIA
- MUSKULAZIOA

sake
KOPERATIBAK

NEKAZARI KOOPERATIBA

San Frantzisko 24 • ELGOIBAR • Tel: 74 07 62
Itziarko industrialdea E-13 • ITZIAR • Tel: 19 93 00

*INEKO nekazari kooperatibak* ***San Bartolome jai zoriontsuak*** *opa dizkizuegu elgoibartarroi.*





DEKORAZIOA

Errosario, 15 behea. ELGOIBAR
TEL: 74 40 55 - 74 40 19




Proiektu eta erreformak
Dekorazioa
Sukaldeak
Opariak

San Frantzisko, 32
Telefonoa 74 02 35
ELGOIBAR

ZURE
LIBURUDENDA!!

- Edozein motako liburuak. Bitxienak ere berehalakoan eskuratzeko ahalegina.
- Dugun esperientzia duzu gure bermea.

**LIBURUAK**

**IPUINAK**

**PUZZLEAK**

**PAPERDENDA...**

San Frantzisko, 29
Telefonoa 74 32 06
ELGOIBAR

GARATE

San Bartolome, 13
Telefonoa 74 11 29
ELGOIBAR




astondoa, s.a.
piroteknia

Gure suek
San Bartolome
jaiak
piztu ditzatela!

Tfnoa: (94) 673 90 16
Faxa: (94) 631 71 40
48143 AREATZA-VILLARO
BIZKAIA


# Zein enpresa kokatzen da hemen?

ela uste al duzu?

**postakutxatilara**

LARRANAGA autoeskola

Santa Ana 11. ☎ 74 10 11 - ELGOIBAR



*Ondo pasa jaiak eta aprobetxatu iraila* **LARRAÑAGA** *autoeskolan gida bainema ateratzeko.*

Gazte txartelarekin
%10eko BEHERAPENA

EL ALMACEN DE ELGOIBAR altzariak

700 m²ko ERAKUSKETA estilo guztietako altzariekin: jubenilak, liburutegiak, sofak, sukalde altzariak,



elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
ARGITARATZAILEA:
Elgoibarko Izarra.
LAGUNTZAILEA:
Elgoibarko Udala.
ZUZENDARIA:
Ainhoa Lodoso.
ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:
Andres Alberdi, Izaskun Elizburu.
KAZETARIAK:
Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.
MAKETATZAILEAK:
Maite Rementeria
Edu Sanz.
PUBLIZITATEA:
Nekane Etxaniz.
ADMINISTRAZIOA:
Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK:
Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Belen Arrizabalaga, Mikel Artola, Mikel Cornejo, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maite Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Korta, Imanol Larrañaga, Antonio Matias, Susana Mujika, Maite Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.
BANAKETA ARDURADUNA:
Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA:
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)
TIRADA: 3.500 ale
LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92
ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## ZENBAT BURU

### HAINBAT ABURU



# Oroimeneko altxorrak

*Pozez beterik kantatzen gaude*
*San Antolinen eguna*
*Hartu gaitzazu gero zeruan*
*oh, santu maitagarria*

Halaxe abesten gendun ilusio guztiakin 1972 urtera arte. 1973an bota zaben San Antolineko ermitia, autopistia egin bihar zala eta. Zer pena! Haura zan bezelako eliza ederra, kanpa eta guzti eta, horrekin batera, hainbeste ohitura zahar eta oroitzapen...

Irailaren 1ean hasten zian jaixak. Bizpera egunian gauza bitxi bat egiten zan, gaur egun ahaztuta dagoena. Enbor luze bat landatzen zuten eta puntan zapi bat zintzilikatzen. Mutil gaztiak ahalik eta goren igo behar zian, zapia ikutu arte. Goizeko 3etan gaztiak elkartzen zian berakatz zopa jateko, orain txokolatia jaten dan antzera. Irailaren 2a, zan San Antolin eguna. Prozezioa eta meza egoten zian, euskal dantzak, bertsolariak eta, arratsalde partera, asto lasterketa. Txiki Eguna ere ospatzen zan eta egun horretan zezenak egoten ziran. Eta egunero erromeriak, nahi zeben danak dantza egiteko. Garai baten, gainera, neskekin dantza egitia nahi zaben mutilek ordaindu egin bihar izaten zaben.

San Antolin eguna oso berezia izaten zan guretzat. Familia guztia meza entzutera juten ginan jaietako arropak jantzita. Gero, Karkizao baserrian bazkaltzen gendun. 30 pertsona elkartzen ginan bi mahaitan, haundixa nagusientzat eta txiki bat umientzat. Baserriko oilaskua jaten gendun baina onena, sorzen zan girua izaten zan. Argingo aitxitxa bertsotan hasten zanian han egoten zian parreak eta umoria! Batzuetan, eguraldi txarra zegoenean, mahaitik jaiki ere egin gabe, afarira arte luzatzen zan bazkaria.

Urte guztia egoten ginan jai hauen zai. Nahiz eta San Bartolomietan oso ondo ibili, San Antolin jaiak zian maitagarrienak. Denbora pasatzen den neurrian, herri baten arima ohitura hauen atzetik joaten da. Horrelako esentziarik gabe, zibilizazioak ezingo luke jasan denboraren iragana. Gaur egun desagertu diren gauza horiek, atzean geratu direnak, gure oroimenean behintzat irauten dute. Eta ez da gutxi.

**Ana Igartua**

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Foru Aldundiak eta Elgoibarko Udalak diruz lagundutako aldizkaria*

**Maser**

Ibaitarte kalea 3 - 167 Postakutxa
Tel. (943) 74 26 69 - 74 44 38 - FAXA (943) 74 30 77
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)



- ELETRONIKA INDUSTRIALA
- INFORMATIKA INDUSTRIALA
- PROZESUEN AUTOMATIZAZIOA
- INJINERUTZA ETA FABRIKAZIOA

**MASERek San Bartolome jai zoriontsuak opa dizkizue elgoibartar guztioi. ONDO PASA JAIAK!**

BERUNIK GABEKO GASOLINA • MICHELIN AGENTZIA • GURPIL NEURKETA
PRESIOZKO GARBIKETA • GARBIKETA NEUMATIKOA • ASPIRAGAILUA




©KOKOE 95
EZ ESAN! USTE DUT AITA ZEIN ERRALDOIREN BARRUAN DAGOEN ASMATU DUDALA. ARIN ,ARIN!!
DONK!
CONC!
TOCK!
TONK!




ELGOIBARKO
EUSKO ALKARTASUNAK
SAN BARTOLOME
JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE
ELGOIBARTAR GUZTIOI.



AZKUE

San Bartolome jaietan *La Unión* elkarteak tiro pitxoia antolatu zuen **1943. urtean**. Lerungo futbol zelaian burutzen zen, eta urte askotan antolatu zen arren, aspaldi utzi zitzaion egiteari. Gaur egun, beste data batean antolatzen du Elkarteak eta San Pedroko tiro zelaian izaten da.

Ezkerretik hasita: **eserita Pako Arriola (✝)**, **Jose Arrieta,** txapelketaren lehen postuan geratu zena eta saria ematen *La Unión*eko presidentea zen **Abdón Gabilondo (✝)**.

Atzealdeko mutikoak eskuinetik hasita: erdi izkutuan dagoena **Manolo Zabala**, alboan **Imanol Conde** eta begira-begira dagoen ile horia **Manolo Gil** da.

Kuriositate modura, erretratuaren ezkerraldean, atzean, zelaian batutako eta pilatutako gari mordoska ikus daiteke. Sasoi batean garia hazten omen zen gure lurretan!

MANCISIDOR HERMANOS, C.B.
Mekanizatuak
Mandrinatuak
Planu bidezko piezen fabrikazioa eta mekanizazioa orokorrean.
Ondo pasatu jaiak!
☎ 74 30 55
FAX: 74 37 77
ELGOIBAR

*San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49*

modak
San Bartolome 18.☎ 74 08 49



Goian daukagun erretratua **Rufina Peñagarikanok** lagatakoa da. Erretratua, begibistan dagoen bezelaxe, Txiki Egunekoa da, orain dela 36 urte inguru ateratakoa, **1959. urtearen** bueltan. Plaza Txikian aterata dago eta erretratukoak zezena irteteko zain daude. Zezena irten ondoren ez zen horrelako patxadarik izango. Ikus dezagun zeintzuk diren erretratukoak: Tente, ezkerretik hasita: **Borrajen-en kuñatua, Juanito Egaña (✝), Kaxiano Altuna (Aldamar), Pedro Iriondo, Luis Iparragirre (Artia)** eta **Jesus Mari Muguruza (Agarre Txiki)**. Lurrean jarrita: **Jesus Arrizabalaga (Lapra), Jesus Iriondo, Frantzisko Zialtzeta** eta **Pedro Zialtzeta**.




Onso pasa San Bartolomiak!

**Ofizinak eta erakusketa:** Pedro M. Urruzuno, 8, Tel-Fax 74 38 44



ERROTULUAK

Olaso Poligono Industriala Olaso Kalea
55zbk. A 3. solairua
Tel. 74 39 52 - 74 37 06 - FAX 74 39 51 ELGOIBAR

Gora Sanbartolomiak!

# MUSIKA BANDA



AZKUE

**1885eko uztailaren 1ean sortu zen Elgoibarko Musika Banda. Urte hartan, Ildefonso Lizarriturrik hartu zuen zuzendaritza. 110 urte pasa dira ordutik hona eta denbora luze horretan makina bat gauza gertatu izan dira. Bandak zortzi zuzendari ezagutu ditu, uniforme berria estreinatu du, desagertzear ere egon da eta diska bat argitaratu du. Gaur egun, inoiz baino osasun hobeagoarekin, Elgoibarko kaleak alaitzen jarraitzen du. Aurten ere, San Bartolome egunez, ohiko kontzertua eskainiko du.**

Ildefonso Lizarriturriren ostean, Silvestre Ansola, Ignacio Bereziartua, Ignacio González Bastida, Julio Pérez Cortés, Julian Iriondo eta Jose Zubiaurre izan ziren zuzendariak. 1984ko urtarrilaren 6an Jose Antonio Osoro izendatu zuten zuzendari berri eta oraindik ere berak jarraitzen du. 1960-70 urte bitartean herri askotako bandak desagertu egin ziren, udaletxeek ez baitzuten haien beharrik ikusten eta alperrikako gastua zela uste baitzuten. Halere, Elgoibarko Musika Bandak aurrera jarraitu zuen garai oker haietan. Gerra zibilren garaian mantendu egin zen, nazionalek irabazi zutenez, bandek herriko kaleetan himno nazionala jo behar baitzuten. 15 musiko zituela sortu zen Elgoibarko Musika Banda eta gaur egun 52 kidek osatzen dute. Estimazio handia du elgoibartarren artean, Jose Antonio Osororen hitzetan, "kontzertua ematen dogunian, Herriko Antzo-

TRIL KAFETEGIA
Zorionak elgoibartar guztiei herriko jaietan!
San Frantzisko 26, behea
Tel: 74.26.21

ASEGURUAK
• ELKARTEEN ALDAKUNTZA ELKARTZE ETA ERAKETA.
• LAN, KONTABILITATE ETA FISKAL AHOLKULARITZA.
• ALOKATZE KONTRATUAK
• JUBILAZIOA (Pentsioak)
P. M. Urruzuno, 6. Tel: 74 31 40. Faxa: 74 41 23

kixa a tope egoten da". 1885ean sortu zenetik hona gauza asko aldatu da. Besteak beste, instrumentuak ugaritu egin dira eta musikoen preparazioa ere asko hobetu da. Izan ere, Inazio Bereziartua Musikeskolari esker, hainbat eta hainbat gaztek musika ikasi eta, noizbait Bandako partaide izateko aukera dute.

## Banda gaztea

Gaztetasuna da, hain zuzen, gaur egungo Bandaren ezaugarri bat, bataz beste 24 urte dute Musika Bandako partaideek. Klarinetea da gehien dagoen instrumentua egurrezko beste batzuekin batera, hala nola, oboea, flauta, rekintoa eta abar. Azkenengo urtean bost kide berri sartu dira Bandan eta aurrera begira, zuzendariaren asmoa beste 6 pertsona gehitzea da, "60 pertsonaz osatutako banda ideala izango litzake". Musiko bakoitzak hileko 5.000 eta 8.000 pta. artean jasotzen ditu, kategoriaren arabera. Musika Bandaren aurrekontua 4.800.000 pta.koa da urteko. Halere, kanpora irteten diren guztietan, herri bakoitzeko udaletxeak zerbait ordaintzen die, "gure tarifa 200.000 pta. ingurukoa da. Kontuan izan behar da diru hori jende askoren artean banatu behar dela, egun oso bat kanpoan pasatzen dugula, entsaiuak egin behar direla... Pagatzen dabanantzako asko da, kobratzen dabanantzako gutxi".

Musika klasikoa ezezik bestelako obrak ere jotzen ditu Musika Bandak, "denen gustura egokitzen saiatzen gera. Igual hasteko pasodoble bat jotzen dogu, gero obertura bat, zarzuela bat, zineko musikia, Beatles-ena...". Herriko Antzokira urreratzen den edozein harrituta geratzen da Bandak duen egitarau zabala ikusirik. Gainera, jo aurretik,



■ ■ Musika Bandak 110 urte bete ditu aurten.

## MUSIKA BANDAKO ZUZENDARIAK

Hona hemen historian zehar Musika Bandak izan dituen zuzendarien argazkiak. **Ildefonso Lizarriturri** izan zen lehenengoa baina bere erretraturik ez dugu eskuratzerik lortu.



**Silvestre Ansola** (1895-1902)



**Ignacio Bereziartua** (1902-1939)



**Ignacio González** (1039-1944)



**Julio Pérez-Cortés** (1944-1952)



**Julian Iriondo** (1952-1956)



**Jose Zubiaurre** (1956-1983)



**Jose Antonio Osoro** (1984-...)

EGONDO, s.a.l.
METALEZKO ERAIKUNTZAK
KALDERERIA LANAK OROKORREAN
Olasope kalea 3. blokea ☎ 74 34 08-04 FAX 74 34 08

Txiriboga Taberna
GOSARIAK, PINTXOAK ETA OTARTEKOAK
Aupa San Bartolomiak!
Plaza merkatua 23-24 Tel: 74 18 24



Txomin Mujikak pieza bakoitzaren sarreratxo bat egiten du, historia, bitxikeriak...

1991.ean diska bat grabatu zuen Musika Bandak Iruñeako dultzaineroekin batera. Aurkezpena egin zen egunean bertan 400 ale saldu ziren, izugarrizko arrakasta izan zuen. Garai eskasagoak atzean geratu dira eta gaur egun duen osasun ona kontuan hartuz, gora egingo duela aurreikusten da. Herritarren artean estimazioa duen bitartean, Musika Bandak kaleak alaitzen jarraituko du.

# JOSE ANTONIO OSORO:
# "Gozamena da atrilan gainian egotia "



**- 1984tik zuzendari.**

- Bai, baina aurretik zazpi urtez zuzendariorde izan nitzan eta beste urte askuan klarinetia eta saxofoia jotzen ibili nitzan. 39 urte daruat Bandan. Zuzendari bezela 1984ko urtarrilaren 6an hasi nitzan, Errege Egunian.

**- Zer da banda herri baten nortasunean?**

- Batez ere alaitasuna. Musikan ez dao haserrerikan. Bati musika klase bat gustatuko jako eta beste bati igual beste bat baina danen artian errespetua dao, musikia danan gainetikan dao eta.

**- Zer behar du zuzendari batek?**

- Ikasi, musikia ezautu, obra guztixak ondo estudixau eta, gauzarik inportantiena, norbera musikuak dian bezelakua izatia. Ni atrilian nauanian zuzendarixa naiz baina bajatzerakuan beste bat gehixao.

**- Zer pasatzen da zure burutik atril gainean zaudenean?**

- Konzentrazio haundixa bihar dozu eta seguru egon bihar zera bestieri segurtasuna emateko. Horretarako, entsaio asko egin bihar dira. Entsaiuetan lan asko egin bihar da. Gero, kontzertua ematerakuan gozamena da.

**- Zenbat batuta dauzkazu?**

- Hiru. Bat, Bandako batek egin zian tailarrian, Fernando Azpiazuk. Oin erabiltzen dotena Gustabo Barrenetxeak Sebillatik ekarritxakua da.

**- Noiz hasi zinan musika munduan?**

- 11 urtekin, Jose Zubiaurrekin eta Felix Lodosokin. Akordatzen naiz domekero plazan jo bihar izaten nabala eta lagunak dantzan ibiltzen ziala. Soldaduzkan ere jotzen naban eta gero Txaranga Cachito sortu genduan 1964an lau lagunek, Bitor Altuna bonbuakin, Luis Mari Muruamendiaraz txapekin, Patxi Zabaleta tanborrakin eta ni saxofoiakin. Mauxitxa hasi baino leheno geuk jotzen genduan San Bartolomietan.

**- Noiz arte Musika Bandan?**

- Neri gustatuko litzaidake Bandan 50 urte bete eta errelebua ematia. Oin 39 urte daruat, igual 11 urte barru...

**- Nori eskainiko zenioke kontzertu bat?**

- Elgoibarko herrixari. Bi momentu dauzkat oso gordeta. Bata, Odeoian jo genduanian 100 urte betetzerakuan. Zoragarrixa izan zan, 1.200 kristau izan zian eta jendia sartu ezinda. Haura izan zan Odeoian ein zan azkenengo aktuaziua. Bestia, Mintxeta inauguratu zanian. Emozionantia izan zan. Nik, elgoibartarreri eskainiko niuen kontzertu bat.

GORBEA
JATETXEA
Zorionak herritarrei!
Santa Ana, 10 - Tel. 74 05 80 ELGOIBAR

disco

Jaietan gaude. Alaitu,
dakigun moduan gozatu,
baina ez ahaztu
presoak espetxeetan ditugula,
errefuxiatuak deportatuak;
herri bat osatu nahi
baina ez zaigula uzten.
Langileok, emakumeok, gazteok, herritarrok
badugu zertan jardun,
zergatik borrokatu.
Ondo pasatu jaiak.
Euskal Herria askatu!

ELGOIBARKO
HERRI BATASUNA

JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI"
Edari Banatzailea

GASEOSA
INSALUS
eva
GURELESA
Kristell

SANTA ANA 41. ☎ 74 10 41 - 74 11 32

Agustin Alonso:

# "Irailan 2rarte luzatu ditxugu jaixak"

**Orain hiru urte hartu zuen Lanbroa bere esku. Denbora azkar pasatzen da batzuentzat, motel beste askorentzat. Era batera edo bestera, negozio batean buru belarri sartzen den edonork gauza asko sakrifikatu behar izaten ditu aurrera atera nahi badu. Agustinek aspaldian ez du oporrik ezagutu eta jaien zentzua ere erabat aldatu da berarentzat, jaiak, lanerako egunik gogorrenak baitira. Jakin dugunez, Elgoibarko tabernariek, irailaren 2rako hainbat ekintza antolatu dituzte, jaiak luzatzeko asmoz edo. Horren berri izateko, gure artera ekarri dugu ordu erdi batez "Kaiser".**

**- Jaiak luzatu nahi dituzue.**

- Bai, irailan birako, zapaturako, gauza batzuk antolatu ditxugu, bestela nahiko kolgatuta geratzen zan astebukaeria eta. Tabernarixak elkartu gera eta nola edo hala programatxo bat atera dogu.

**- Zer egongo da?**

- Larunbatian umientzako gauzak egongo dia, Elgoibarko Izarrako begiralien taldiak antolatuta. Gabian, aire libreko zinia egongo da eta amaitxutakuan, Plazan "Duo Plaentxi" eta behian, Madalan, "Potato" eta "Full Dream". Zona bixak bultzatzia nahi izan dogu, jende tipo guztixantzako zeozer organizatzia.

**- Zergatik?**

- Argi dago guretzat negoziua izatia espero dogula, baina era berian jendiari ere kontzertuak eta holakuak eskainiko dizkiogu. Hola danak aterako diaz zeozer irabazten, hori espero dogu behintzat. Gero, ikusiko da.

**- Zein da aurrekontua?**

- Gutxi gora behera miloi bateko gastua eingo dogula kalkulatzen dogu.

**- Udaletxetik jaso al duzue dirulaguntzarik?**

- Laguntza bai baina dirurik ez. Halere, laguntza haundixa da ze gabian itxitzeko ordutegixa luzatu digute, kontzertuak eitxeko eszenarixua mantendu eingo dabe, permisua eman digute eitxeko...

**- Eta nola ordaindu behar duzue dena?**

- Tabernari bakoitzak bere borondatia jarriko dau, irabazitxakuan arabera edo, norberak jakingo dau zenbat nahi daban ematia. Momentuz bastante konprometidu dia baina gero, kobratzera juterakuan ikusiko dogu zer pasatzen dan.

**- Aurrera begira, zer ?**

- Hau esperientzia pilotua izango da. Segun zela urtetzen dan urtian zihar ere errepikatzeko asmua dago, fetxa konkretuetan behintzat. Dana dala, tabernarixen artian sekula ez da egon alkartasunik, bakoitza bere kontura jun da eta oso zaila da danak alkartzia zeozer batera eitxeko. Ez da erretza ze neretzat ona izan leikena beste batentzat igual ez da hain ona, eta inork ezin dio beste bati esan zer ein bihar daban.

**- Jaietan prezioak igotzeko asmorik?**

- Ez dakitx jendiak zer eitxeko asmua dakan. Batzuk komentatzen dabe pikuak borobiltzia eta holakotxiak baina ez dakitx. Bakoitzak nahi dabana eingo dau, preziuetan ere ez dao danak konforme ipintzerik, ni ez naiz jungo inon etxera esatera ze prezio ipini bihar ditxun.

**- Aukeran, zein jai-egun hartuko zenuke libre?**

- Lehen danak zian onak, beti disfrutatzen naban. Oin, Txiki Egunian eskapatzen naiz lagunekin bazkaltzera baina ez dot ixa disfrutatzen; lana dakat buruan denbora guztian, gitxi lo einda egoten naiz askotan, gabian berriz ere lanera...

**- Jende asko espero al duzue?**

- Aspaldixan, igartzen da astebukaeratan jende gehixao ibiltzen dala kalian, urtian zihar ere bai. Lana mobitzen hasi da eta jendiak, nahiz eta lan fijorik ez euki, dakan bitxartian aprobetxatu eitxen dau, a tope disfrutatzen dau momentua. Ia danak pasatzen ditxugun jai on batzuk!



**"Plazan "Duo Plaentxi" eta behean, Madalan, "Potato" eta "Blue Dream" taldeek joko dute"**



# ARANBARRI

**GRUA ETA PLATAFORMADUN GARRAIOA**

*Elgoibartar guztioi Jai zoriontsuak opa dizkizuegu*

Tel. 74 02 42 Tel. Mugikorra 908-77 06 37 ELGOIBAR

---

# *Gabi* JATETXEA



Nafarroa enparantza. Tel 74 12 30

• GOSARIAK • PINTXOAK •
(8,30etatik aurrera)
MENU BEREZIAK

*Ondo pasau San Bartolomiak!!*

■ Aldaketagatik irailean jatetxea itxita

---

**ELEKTRIZITATEA ARGIGINTZA**

*Ondo pasatu*

Santa Ana, 12-14 - Tel. 74 13 76 Elgoibar







# Elgoibartarrok:

Zuen Alkate hautatuaz eskaini didazuen ohorea eskertuz, Elgoibarren etorkizunean urte ona izan dezagun da nire desioa eta ilusioa bidaltzen dizuet.

Etorkizun hori eratzeko denon laguntza behar dut eta Bartolome Deunaren jai hauetan elgoibartar izatearen sentimenduak urte guztian zehar iraun dezala nahiko nuke.

Jaia alaiak denoi opatuz, bai bertan zein kanpoan daudenei, bai eta bisitatuko gaituzten guztiei ere.

Zuen Alkatearen agur bat.

**Gillermo Garate Urzelai**

OIHALA eta MERZERIA
Aupa San Bartolo!
Neurrira egindako jantziak
Errosario 8 • Tel:74 35 95 • ELGOIBAR

GOROSTIZA
LIBURUDENDA
• Jostailuak
• Eskolako materiala • Fotokopiak
• Opariak
Errosario 16, ☎ 74 03 88

GABILONDO
INMOBILIARI AGENTZIA
S. Frantzisko, 51. 1D
Domingo Irala kalea

usua
KAFETEGIA
Zorionak eta ondo pasa San Bartolome jaiak!
Sant... Tel. 74 25 20

oizme[illegible]i
Tel: 74 00 16
TABERNA

elektrizitatea
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ARGIZTAPENAK
- AUTOMATISMOAK
Ondo pasa Jaiak!
San Frantzisko 51, behea. Tel: 74 12 38

# San Bartolome bezpera

## EGITARAUA

### asteazkena 23

**9,30etan:** XLIX. Etxaniz Memoriala.

**1ean:** Jaien hasiera txafligu eta kanpai hotsekin.

**Jarraian,** Mauxitxa txarangarekin kalejira.

**4,30etan:** Erraldoi eta buruhandien konpartsa herriko dultzaineroekin.

**5etatik 9ak arte:** Haurrentzako jolasak Foruen Enparantzan.

**6etan:** C.D. Elgoibar Elkarteak antolatutako Futbol Txapelketa Mintxetan.

**8etan:** Salbe Nagusia Udal Txistulari Taldearekin eta Eliz Abesbatzarekin.

**11etan:** Herriko Dultzaineroen jarduna Foruen Plazan.

**Jarraian,** Erreka seikotearekin dantzaldia.

**12etan:** Sorpresa Foruen Plazan.

**Jarraian,** Mauxitxarekin kalejira.

## BAITA ERE...

**12,45tan:** Ikurriñari omenaldia Plaza Handian HBk antolatuta.

**15,00tan:** Txupinazoa Eskubideen Plazan.



TXENTXO

*Ordubatean lehenengoa, hiruretan tradizionala eta 6etan alternatiboa. Hiru txupinazok emango die hasiera jaiei.*


Ondo pasa Sanbartoloak!

San Bartolome 26, Tel. 74 08 48

..TXIMI, S.A. TAILERRAK..

Tornu, fresadora eta rektifikatu LANAK

OLASO industrialdea behea. Tel. 74 10 43 Faxa: 74 10 43

BAMA S.L.

ERAIKUNTZAK



ETXEBIZITZA ETA PABILIOI INDUSTRIALEN PROMOZIOA

San Inazio,4 - Tel 74 14 99
ELGOIBAR (Gipuzkoa)



*Bezperan gorputzak garbi eta deskantsatuak daude. Juergarako gogoa begibistan izaten da hasiera-hasieratik.*



*Madalako parkean hainbat txozna izango da aurten , taberna zuloan ezezik, kalean ere jai giroa jarriz.*

## JAI SALTSAN

**ANA ZIGORRAGA**

25 urte, biologoa

**"Alkoholakin eta beste ezerrekin gehixegi pasatu gabe ahalik eta onduen pasatu"**

**- Zein txupinazorekin hasten dituzu jaiak?**
Azkenengo urtietan hiruretako txupinazoarekin, Usua tabernakuakin.

**- Lehenengo gau-pasa?**
Lenengo egunian, orduantxe zaude freskuen.

**- Madalako ala Plazako giroa?**
Madalan ibiltzen gera, taberna inguruetan., gure jaiak gauez izaten dia eta.




ZUBACOR, S. L.
Ibaitarte kalea, 11
Tel. 74 08 44
Fax 74 26 66
Ondo pasa San Bartolomiak!
50 Posta kutxa
20870 ELGOIBAR
(Gipuzkoa)

sisfle
ALEAZIO ARINETAN PRESIZIOZKO LANAK
Olaso industrialdea
Tel. 74 39 00 ELGOIBAR

Talleres ALBE
KANPO ETA BARRUEN REKTIFIKATUAK - PLANEATUAK
CRUSHING BIDEZ PERFILEN PLANEATUAK
BROTXATUAK - MAKINARIA KONPONKETA
Trenbide kalea, 21. Tel. 74 32 86. ELGOIBAR (GIPUZKOA)

KALAMUA
TXAPA ALMAZENA
Tel 19 93 65 DEBA
42. postakutxa ELGOIBAR

# San Bartolome eguna

## EGITARAUA

### osteguna 24

**9,30etan:** Diana Dultzaineroekin.

**10etan:** Txistularien Diana.

**10,15etan:** Udal Musika Bandaren kalejira.

**11etan:** Meza Nagusia Udal Gorporazioarekin eta Bandarekin.

**Segidan,** Soka-dantza Haritz Dantzari Taldearekin.

**Ondoren,** Musika Bandaren kontzertua Foruen Plazan.

**5etan:** Erraldoi eta buruhandiak Herriko Dultzaineroekin.

**5etatik 9etara:** Haurrentzako jolasak Foruen Enparantzan.

**6etan:** Pilota partiduak Ikastolako frontoian.

**7,30etan:** Trabuko taldea Madalenan.

**11etan:** Astondoa etxearen eskutik suzkorroberak Lerunen.

**Jarraian,** Dultzaineroak Madalenan.

**5,30etan:** Txokolatada Madalenan.



*Mezaren ostean, Soka dantza izaten da ikusgai Haritz Dantzari Taldekoen eskutik.*

## IKUSTEKO...

Irailaren 2ra arte, Esmeralda Zapparolik ateratako 35 argazki, zuri-beltzean izango dira ikusgai Kultur Etxean. “Fashion” izenburupean, modako argazkilaritzaren estetika isladatzen du eskaparateetako manikien erretratuen bidez. Gehienak Madriden, Bartzelonan, Donostian eta New York-en ateratakoak dira.


ROKE TABERNA

- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Afari merkeak
- Pintxoak...

Aurrez deituz gero hobe!

Ondo pasa San Bartolomiak!

Erretxindi, 1 • Tel. 74 37 60 • ELGOIBAR

MIREN
arraindegia



Santa Ana
74 34 49
ELGOIBAR



AZKUE

*110 urte bete dira Musika Banda sortu zenetik. San Bartolome Eguneko kontzertua ekintzarik estimatuenetarikoa bihurtu da.*



AZKUE

*Gau osoa juergan eman eta sokamuturrari hobeto eusteko, goizaldeko 5ak txokolatez bustita etorriko dira.*

## JAI SALTSAN

**MARIA LUISA SANGRADOR**

47 urte, etxekoandrea

**“Jaiak ahalik eta hobetuen pasatu, poltsikoa horretarako bero edukiz”**

**- Egun honetako ekitaldirik ederrena?** Meza nagusia eta Bandaren kontzertua. Asko gustatzen zaizkit.

**- Gehien disfrutatzen duzun eguna?** Txiki Eguna oso ondo egoten da, niretzat berezia da.

**- Su artifizialak gogoko dituzu?** Bai, jaietako tipikoa da, oso gogoko ditut gainera.




Kafetegia

PEDRO PEREZ BERISTAIN
San Roke, 30 behea. ☎ 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA ATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

OIERKI IGONGAILUAK
Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua
☎ (943) 11 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

TXURI BELTZ
Taberna
San Franzisko 38

# Zure esku balego zer ipiniko zenuke jaietan?

**MARTA DIEZ**
**16 urte, ikaslea**

Gazteentzako gauza gehiago antolatuko nituzke, adibidez kontzertuak Madalan, EH Sukarra... Kuadrilen arteko lehiaketak bultzatuko nituzke.





**MIRARI TEJERO**
**20 urte, ikaslea**

Herriko jendiak parte hartzeko gauzak bultzatuko nitxuzke. Kuadrilen arteko bazkarixa jarriko naban eta herriko musika taldiak bultzatuko.

**M. ANGELES BARRENETXEA**
**50 urte, etxekoandrea**

San Bartolomiak mantendu arren, jai fuertiak Trinidadietan jarriko nitxuzke, agostuan baino jende gehixao ibiliko litzake.





**TXOMIN LOIOLA**
**49 urte, langabetua**

Pelotia asko gustatzen jata eta partiduak bi egunetan barik hirutan ipiniko nitxuzke. Plazako konjuntuak potentziauko nitxuzke nagusixentzako.

**ASIER JAUREGI**
**10 urte, ikaslea**

Tiobibo gehixo ekarriko nitxuzke, norixa haundi bat eta holakuak. Zezen txikixak egunero jarriko nitxuzke eta jaixak aste t'erdira luzatu.





**JUAN MARTIN**
**26 urte, fresadorea**

Su artifizial eta musika talde hobeak. Plazan nagusientzako taldeak eta Madalan gazteentzakoak. Eta sokamuturra egunero, asko gustatzen zait eta.

Mandiola S.L. Egurrak
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42

ZALDUA
ITURGINTZA
GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK
Urasandi 26. Tel: 74 05 30

DEBA KALEA 12
TEL.: 74 42 23
20870 ELGOIBAR
ERREFORMAK
FATXADAK ETA TEILATUAK
OBRAK OROKORREAN

URKIOLA
San Frantzisko 8 ☎ 74 02 80

# Jaietan gauez ala egunez ibiltzen zara?

**LOURDES URIGUEN**
**67 urte, etxekoandrea**



Gabian gehixao. Egunez beti geratzen gera urten gabe. Gabian beranduarte. Neri dantzia gustatzen jata baina senarrari...

**JOSU JUARISTI**
**18 urte, ikaslea**



Gauez martxa eta egunez sokamuturra, poteoa, txarangia... Etxera, dirua hartzera eta lo arratsaldez. Ezin dotenian gehixao etxera.

**J. IGNACIO LEON**
**18 urte, ikaslea**



Iaz egon nintzen lehen aldiz eta gauez ibili nintzen gehienbat. Egunean zehar lasai ibili eta girua ikusi eta gabian martxa.

**JOSU GONI**
**24 urte, kamarerooa**



Gauez. Egunez lo eitxen dot batez ere. Gabeko anbientian ibiltzia gustatzen jat, gorputzak aguantau arte. Txiki Egunian ibiltzen naiz egunez.

**NEKANE CARRASCOSA**
**27 urte, ume zaintzailea**



Gauean, baina eguna ere gustatzen zait. Dena aprobetxatu nahi izaten dut. Txiki Egunean ez dut inolaz ere kale egiten.

**MARI ASUN ZAFRA**
**36 urte, etxekoandrea**



Umeekin egunez ibiltzea tokatzen zait, baina gaua gustatzen zait. Batzuetan egunez zein gauez gozatzeko aukera izaten dut.






# Txiki eguna

## EGITARAUA

### ostirala 25

**7,30etan:** Mauxitxa txarangarekin eta Dultzaineroekin Diana.

**Jarraian,** sokamuturra.

**Ondoren,** Salda eta txorizoa.

**12etatik 2ak arte:** Mauxitxa txarangarekin demaseko kalejira.

**5etan:** Zezenak Plaza Txikian.

**6etatik 7etara:** Zezentxoak eta ponyak Plaza Txikian.

**6etan:** Pilota partiduak Ikastolako frontoian.

**7etatik 9etara:** Koska taldearekin kontzertua Madalenan.

**11etan:** Dantzaldia Koskarekin Madalenan.

## OMENALDIA

Eguerdi aldera, Jose Alberto Ansola "Mauxitxa" omenduko du Udalak. Elgoibartar honek 25 urte segidan daramatza txarangan eta, hori da, hain zuzen, omenaldiaren arrazoia.



TXENTXO



TXENTXO

*Hanka arinak eta burua tente. Horra hor bi aholku zezenari gertuegitik adarrik ez ikusteko.*


Mari Jose
GOZO-TOKIA
San Inazio, 1. ☎ 74 16 93
Zorionak txiki eta haundiei !

Tik-Tak
OSO ONDO PASA SAN BARTOLOME JAIXAK!!
Errosario 21 ☎ 74 17 15 ELGOIBAR

AUTOMATISMO ELEKTRIKOAK
San Roke 30 behea - Tel. 74 38 09 - ELGOIBAR

Cordon, Vilarchao, c.b.
DEKORAZIOA
MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.
San Roke , 7 behea. Tel.74 28 74 - 74 05 70





TXENTXO

*Ardoa, txaranga eta bazkaria. Eta, azken urteotan, baita irina eta arraultzak ere. Txiki Egunerako koktel berezia.*



*Errosario kaletik Plazara bitarteko ibilbidea izaten da arrakastatsuena. Kolore zuriz eta gorriz jazten da Mauxitxak jarritako jai giroa.*

## JAI SALTSAN

**JUAN KARLOS AZKARRETA**
30 urte, irakaslea

**"Arratsaldian dutxatziana modernidadiak dia eta gainera zikina zaudenian ligatzen da gehixen"**

**- Noiz hasten da zuretzat Txiki Eguna?** - Goizian goiz, 8ak aldera sokamuturrakin, zezena ikusten baina distantzia mantentzen. Gero salda bero bat hartzen deu.
**- Eta txaranga?**
- Normalian Madala aldera juntatzen gera eta bukatu arte.
**- Noiz bukatzen da Txiki Eguna?**
- Goizeko 8etan hasi eta hurrengo eguneko 8ak arte, gorputzak aguantatzen badau, behintzat. tipikoa da, oso gogoko ditut gainera.




PINTXO HOTZAK BEROAK ETA KAZUELATXOAK
ALDAPA TABERNA
Ondo pasa Sanbartolomiak
Santa Klara -22
☎ 74 26 32

KORTSE RIA, OSAGARRIAK ETA BA UKO ARROPA.
San Roke 13 behea. Tel: 74 34 01

Ondo pasa San Bartolome jaiak!
*Irailaren 1ean irekiko dugu.*

AITZ Taberna
BOKATAK- KAZUELATXOAK - AFARI MERKEAK
Errosario, 20.
San Bartolome jai zoriontsuak guztioi!

# Baserritarren eguna

## EGITARAUA

### larunbata 26

**9,30etan:** Trikitilari eskolakoen kalejira

**Ordu berean,** Deba Beheko Ganadu Sariketaren erakusketa Plaza Txikian.

**10etan:** Sagardo Dastaketa eta Lehiaketa Foruen Plazan.

**12etan:** Foruen Enparantzan Ganadu Sariketaren partehartzaileei ongi-etorria Haritz Dantzari Taldearen eskutik.

**Segidan,** Ziarda, Meabe eta Azpillaga bertsolariak Foruen Enparantzan.

**Ondoren,** ganadu desfilea eta sari banaketa Ganadu Sariketako irabazleei.

**2etan:** La Union elkartean bazkaria.

**5etan:** Trikitilari eskolakoen kalejira.

**Ordu berean,** Gelatxo orkesta Foruen Enparantzan.

**6etan:** Ziarda, Meabe eta Azpillaga bertsolariak Foruen Enparantzan.

**6,30etan:** Leku berean Gipuzkoako Aizkolarien Lehiaketa.

**7,30etatik 10,30ak arte:** Gelatxo Foruen Enparantzan.

**11etatik 2etara:** Txatanuga Futz Band orkestaren jarduna



*Makina bat baserritar hurreratzen da goizean goiz ganadu sariketa hasi orduko. Kantitatea ezezik, kalitatea ere izaten da ikusgai.*

## ENTZUTEKO...

Gaueko 11etan hasita, Txatanuga Futz Band orkestaren doinuak izango dira Plazan entzungai. Ondarruko talde honek makina bat jende jarriko du dantzarako prest.





ibai-ondo
Erretegia
Giza eskubideen Plaza
Tel: 74 26 27





AZKUE

*Sagardo dastaketa ala txorizoa al da jendea erakartzen duena? Begira argazkiari!*



*Aurten Gipuzkoako Aizkolari Txapelketaren finala jokatuko dute sei aizkolari onenek.*

## JAI SALTSAN

**MARIA LEIARISTI**

70 urte, etxekoandrea

**"Ilusiua beti. Bazkaldu, eguna patxaraz pasau eta horixe da dana. Ilusiua ez da galdu bihar!"**

**- Ganadu sariketan izaten zara?** - Lehen ganadua ekarten gendun baina oin ikustera bakarrikan etortzen gera, ferixa ona izaten da ta.

**- Herri kirolak gogoko?**

- Bai, ederrk izaten dia. Batez ere, elgoibartarrak gustatzen jataz. Harrijasotzaile gaztia ona dakagu, Elgoibarrera eskasik ez da etortzen.

**- Gelatxorekin dantzarik?**

- Ingo eztou ba? Horixe! Lehen baino motelao baina... sueltuan eta agarrauan.




San Bartolome jaixetan JO TA SUA!

GRAIK

KAFETEGIA

74 42 65

IPINTZA

Pinturak

- Pintura eta paperen salmenta
- Moketak eta sintasolak jartzen ditugu
- Zoru eta hormen apaindurak
- Gortinak saldu eta ipini
- Gortinen erakusketa Errosario kaleko 7an

Foruen Plaza 4, ELGOIBAR. Tel . 74 04 40

# Gazteen eguna

## EGITARAUA

### igandea 27

**8,30etan:** Idiarena Dultzaineroekin.

**Jarraian,** sokamuturra.

**Segidan,** txorizoa eta salda banaketa.

**11,30etan:** Gotibeherak San Roken.

**1ean:** Mauxitxaren kalejira.

**5,30etan:** Zezenak Plaza Txikian.

**11etan:** Ttakun, Ñaco Goñi´s Blues Band eta Deabruak Teilatuetan taldeen kontzertua Madalenako parkean.

**5,30etan:** Txokolatada Madalenan.

## GAUPASA

Igandea izan arren, larunbateko parrandaren itxura hartuko du egun honek. Gauean Madalan izango den kontzertuaren ostean, eta goizaldeko txokolate janarekin, ez da izango aitzakiarik goiz etxeratzeko.



TXENTXO

***Sokamuturraren ostean, gosaria baino hoberik ez da. Saldak eta txorizoak behintzat, ez dute, ez, denbora luzez irauten.***


ASESORIA GOIAR
AHOLKULARITZA

- KONTABILITATEA
- AHOLKULARITZA FISKALA
- LAN AHOLKULARITZA
- ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome, 1 • Tel. 74 26 74 / 02 32 • faxa: 74 21 29

Edergintza

- Aurpegi tratamenduak
- Gorputz tratamenduak
- Masaia
- Sauna
- Solariuma

San Frantzisko 49, 1 esk. Tel. 74 43 03

UDA
ELGOIBAR

Ondo pasa Sanbartolomiak!



*Zezen plaza partikularrik bada Elgoibarren. Haurrak eta gazteak ederki asko moldatzen dira hondar gainean enbolatuak zirikatzen.*



*Gaueko 11etan hasita, Ttakun, Ñaco Goñi´s Blues Band eta Deabruak Teilatuetan taldeen kontzertua izango da Madalenako parkean.*

## JAI SALTSAN

**AMELIA ALMEIDA**
17 urte, ikaslea

**"Jendeak edana gehiago kontrolatu behar du, bestela, merezi duten gauza asko galtzen dira"**

**- Aurten, Gazteen eguna, igandean.**

- Gaizki xamar, ez? Girorik ez da faltako baina ordurako apur bat nekatuta zaude.

**- Izaten al zara goizaldeko txokolatadan?** - Oraingoz ez naiz sekula heldu etxera joateko ordua izaten dudalako. Beharbada aurten...

**- Ajea kentzeko?**
- Ur asko edan. Eta lo gehiago egin, normalean baino gehiago.








MEKANOSA
Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar

★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ PLANOEN BIRREGILEAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX

KEMEN Belardenda
MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAIA ETA REFLEXOTERAPIA
*Ondo pasa jaiak!*
San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

TiK-TaK
Errosario 21. ☎ 74 17 15

Edergintza
P.M. Urruzuno 27. ☎ 74 31 32

Mary
HARATEGIA • URDAITEGIA
Merkatu Plaza 42-43

ALTZARIAK
Santa Ana 4-6. ☎ 74 12 34

ZUBIAURRE
autoeskola

DISCOTK

izoztuak
Merkatu Plaza 19

NORBERTO ZABALA
PINTURAK
Errosario 32. ☎ 74 08 45

KATIUSKA
taberna
Errosario, 28. ☎ 74 00 38

ostarku
ARGAZKI DENDA
Santa Ana 5
☎ 74 06 46

TINDATEGIA
ARKUPE
Foruen plaza 4. ☎ 74 00 91

JANTZI DENDA
Rosario 14. ☎ 74 16 48

CASA ASTIGARRAGA
Errosario 18

TXANKAKUA

URBIOLA
supermerkatua
Urasandi 25. ☎ 74 40 82

URKIDI
AHOLKULARITZA
ASEGUROAK
Kalamua, 12. ☎ 74 18 51

Dekorazioa
Errosario 15, behea. ☎ 74 40 19

TXANKAKUA ZERBITZU E

TXANKAKUA

TXANKAKUA

Errosario, 25. ☎ 74 23 02

BODEGA
P. Muguruza, 20. ☎ 74 25 00

GOROSTIZA
LIBURUDENDA
Errosario 16. ☎ 74 03 88

GLAZA
P. Muguruza, ... ☎ 74 16 42

Dori
urdaitegia
Errosario, 29. ☎ 74 11 92

GARATE
JANTZI-DENDA
San Bartolome,13. ☎ 74 11 29

San Bartolome 23
LURRINDEGI ETA GARBIKETA
AUTOZERBITZUA

KEMEN
Belardenda
San Bartolome 25. Tel 74 40 31

Bece
IZOZTUAK
Merkatu plaza. ☎ 74 05 99

BETi
Errosario, 6. ☎ 74 16 44

Arrieta
modak
San Bartolome 18.
☎ 74 08 49

San Bartolome 35. Tel. 74 03 45

Anparo
TXARKUTERIA
● MERKATU PLAZA ●

JUANA
JANARIDENDA
San Bartolome 12. ☎ 74 12 26

San Bartolome 20. ☎ 74 07 44

gorroño dekora
San Bartolome 21. ☎ 74 01 91

San Frantzisko 19
☎ 74 42 13

San Roke 7
☎ 74 34 01

ASEGURUETXEA
P. Muguruza,4 . ☎ 74 26 99

Agirre
SASTRERIA
San Frantzisko 30. ☎ 74 03 41

San Frantzisko 34. ☎ 74 02 35

ETXABE
FERRETERIA
San Frantzisko 45
☎ 74 02 87

Merino
Zapatak
Errosario 11-12 . ☎ 74 34 35

FIDALGO
supermerkatua
San Inazio 9. ☎ 74 03 92

ARANBURU
BITXIDENDA
San Frantzisko 26.
Tel. 74 25 35

☎ 74 03 59

OINETAKOAK
BOLTSAK - GERRIKOAK
San Frantzisko 2. ☎ 74 04 95

OIHALA eta MERZERIA
Errosario 8 ☎ 74 35 95

LAURITA
SUPERMERKATUA
San Roke 34. ☎ 74 09 92

GARAY
HARATEGIA
URDAITEGIA
San Frantzisko 9. ☎ 74 13 92

IDARRAGA
KAFEAK
San Frantzisko 1. ☎ 74 05 33

Classy
LIBURUDENDA
San Frantzisko 56
☎ 74 02 40

# TA MERKATARI ELKARTEA

Herriko merkatarien izenean, ondo

imanole
GOZOTEGIA
San Frantzisko 54 Tel. 74 41 37

Anton
ALTZARIAK
San Frantzisko 11
☎ 74 11 88

Gozotegia Irenkidenda
Casa Salegui
1940 ean Sortua
San Frantzisko 49. ☎ 74 28 75

elektrizitatea
San Frantzisko 51 ☎ 74 12 38

IRIONDO
KIROLAK
San Frantzisko 37. ☎ 74 09 56

HARATEGIA
Patxi
San Bartolome 30. ☎ 74 35 04

ecenarro
Barruko erropak
Umeentzako erropak
San Frantzisko 10. ☎ 74 26 19

ION
JANTZI DENDA
San Bartolome 37.
☎ 74 06 27

Arauri
lurrindegia
San Bartolome 6. ☎ 74 17 89

GURRUTXAGA
HARATEGIA
San Frantzisko 32.
☎ 74 05 98

San Frantzisko 14,

ELORZA AHIZPAK
San Bartolome 8. ELGOIBAR

PILAR
San Frantzisko 30. ☎ 74 18 35

LURRINDEGIA
San Frantzisko 2. ☎ 74 02 99

ikus
OPTIKA
San Frantzisko 16. ☎ 74 37 34

gozotegia
San Frantzisko 15
☎ 74 16 88

LANDA
HARATEGIA
San Frantzisko 4. ☎ 74 27 58

garajea
ASTIGARRAGA
San Frantzisko 53
Tel. 74 01 86

ARGIN
ZAPATAK
San Frantzisko 13

# Jubilatuen eguna

## EGITARAUA

### igandea 27

**12,30etan:** Jubilatuentzako Meza Nagusia.

**2etan:** Gelatxo orkestarekin anaiarteko bazkaria.

**7etan:** Solteko Dantza Txapelketa Udal Txistulari Taldearen laguntzaz.

**11etan:** Legazpi taldearekin dantzaldia Foruen Enparantzan.

## SOLTEKO DANTZA

Arratsaldeko 7etan 14 urtez azpiko bikoteen solteko dantza txapelketa izango da. Porrusaldak, arin-arinak eta fandangoak dantzatzerakoan hankak arin mugitzeak ezezik, arroparik dotoreenak eta originalenak ere badu pisurik epaimahairen erabakian.



*Aspalditik ospatzen da Jubilatuen Egunean Solteko Dantza Txapelketa. Trikitiaren doinua nagusitzen da Plaza Haundian.*


okindegia eta gozotegia




San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35
ELGOIBAR

ARMUETA



Isabel
Ormazabal

Haratequia Urdaitegia

*Jai zoriontsuak opa dizkizuegu elgoibartarroi!*

San Bartolome, 16. Tel: 74 06 40



*Sabela bapo bete, mingaina ederki luzatu, txatxarari majo eutsi eta kontuak, aspaldikoak eta berrienak, gogoratu. Frontoia behintzat, lepo egoten da.*



*Eta jai giroak arima ezezik gorputza ere gaztetzen eta arintzen duela adierazteko, hona hemen bazkal-osteko dantzaldiaren estanpa!*

## JAI SALTSAN

**AGUSTIN MAKAZAGA**
65 urte, jubilatua

**"Ahalik eta San Bartolome onenak izan deixela. Zaratia jaixetan egon bihar da, tamainan"**

**- Jaietan arima gaztetu egiten al da?** - Gaztiak beti gazte, bana gu ere piska bat gaztetzen gera. Txikiteua jotzen degunian bizitzen gera.

**- Bazkarira eta dantzaldira joaten al zara?** - Ondik ez gera sekula animau baina hemendik eta bi urtera igual jungo gera. Gainontzian Txiki Egunian eitxen dou bazkarixa.

**- Juergarik bai?**
- Emaztiakin bueltatxua ematen dot gabian, kafia hartu... baina goizalderarte pentsau ere ez!




ILEAPAINDEGIA
✖ MISTOA ✖ MAKILAIAK
✖ EMAZTEGAI/SENARGAIENTZAKO ORRAZKERAK
ESTETIKA
✖ DEPILAZIO HOTZA ETA BEROA ✖ SOLARIUMA
✖ MANIKURAK ✖ AURPEGI GARBIKETAK
Santa Ana 7. ☎ 74 40 26 ELGOIBAR

JOSE ANGEL ZABALA
URDAITEGIA
Berezitasunak:
-Bakilaua
-Txerrikiak
Zorionak!
Merkatu Plaza 33-34

# Umeen eguna

## EGITARAUA

### astelehena 28

**8etan:** Dultzaineroekin Idiarena.

**Segidan,** sokamuturra.

**Ondoren,** zezentxoak eta ponyak Plaza Txikian.

**11,30etan:** Marrazki Lehiaketarako izen-ematea Udaletxeko arkupeetan.

**12,30etan:** Kukubiltxo taldearen kalejira Leku Ederren.

**Jarraian,** Jaiotza lanaren aurkezpena.

**2etan:** Haurrentzako bazkari herrikoia Foruen Enparantzan trikitilariekin.

**3etan:** Leku Ederren, Marrazki Lehiaketa.

**4etan:** Marrazki Lehiaketako lanen aurkezpena.

**Ordu berean,** haurrentzako jolasak Foruen Enparantzan.

**5etan:** Buruhandi eta erraldoiak Dultzaineroekin.

**6etan:** Futbol Txapelketako finalak Mintxetan.

**Ordu berean,** Marrazki Lehiaketako sari banaketa.

**Ondoren,** globo askaketa eta goxoki banaketa.

**6,30etan:** Mauxitxarekin kalejira.

**7,30etan:** Egan taldea Foruen Enparantzan.

**10,30etan:** Suzkorroberak Lerunen Zaragozana etxearen eskutik.

**Jarraian,** Egan taldearekin dantzaldia Foruen Enparantzan.



TXENTXO

*Bazkari herrikoien artean haurrena nabarmentzen da. Haien partehartzea eta alaitasuna inork gutxik pareka ditzake.*

## BAZKARIA

Eguerdiko 2etan,Ttrikitilari Eskolakoen soinujoleek eta panderojoleek alaituta, 7 eta 14 urte bitarteko haurrak Plaza Haundian elkartuko dira lagunarteko giroan bazkaltzeko. Norberak eraman beharko du gustuko bokadiloa baina edariak eta postrea bertan banatuko dira.




Garbiñe Edergintza
-Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
-Depilazio elektrikoa eta hotzean
-Solariuma
P.M. Urruzuno 27. Tel: 74 31 32

LANDA HARATEGIA
Jai Zoriontsuak opa dizkizuegu elgoibartarroi!
San Frantzisko 23,
Tel. 74 27 58

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal
URKIDI AHOLKULARITZA
ASEGUROAK
Kalamua 12 ELGOIBAR Tel-Fax: 74 18 91
Ondo pasa gure patroiaren jai nagusiak!



*Jaiak diren seinalerik garbienetarikoa barraken presentzia izan ohi da, batez ere haurrentzat, haiek baitira benetako protagonistak.*



TXENTXO

*Katekistek antolatuta, urtero ikus daitekeen ekintza bihurtu da globoen askaketa eta ondoren izaten den karamelo jaurtiketa.*

## JAI SALTSAN

**CLAUDIO AMADO**
12 urte

**"Lagunekin ibili eta egun guztietan irten. Eta datorren urterako kart-ak ekarri"**

**- Helduek ala haurrek pasatzen dute hobeto jaietan?** - Gehixen nagusixak, parrandetan eta horrela ibiltzen dialako. Guk barraketan, lagunekin txutxerixak erosten.. pasatzen ditxugu jaixak.

**- Ligatzerik bai?** - Nik ez dot ligatzen baina lagunek bai. Badaukat fitxajea baina... aurten saiatuko naiz.

**- Gauean zer ordura arte lagatzen dizue?**
- Gehixen umien egunian lagatzen diate, hamaikak arte edo.




Kkf g
ILEAPAINDEGIA
Zorionak eta Jai zoriontsuak izan!
☎ 74 00 69
San Frantzisko, 40 - 3 - B

AGIRRE
HARATEGIA
Zorionak!
Santa Ana, 7. Elgoibar
☎ 74 05 97

ecenarro
- Bcttwmq gttqrcm
- Uoggpvl cv gttqrcm
Zorionak eta Ondo pasa jaiak!!
San Frantzisko 10,
Tel.: 74 26 19


PEDRO OSORO
urdaitegia
*San Bartolome jai zoriontsuak opa dizkizuet herritar guztioi eta bereziki urtean zehar zuen konfidantza erakutsi didazuenoi.*
Merkatu Plaza, 37. zbka. 74 25 36

GARATE
estankoa
Santa Ana 20 - ☎ 74 03 40

# ELGOIBARKO
# OSASUN GIDA

**PODOLOGOA**
- Iñaki Ribero .......................San Bartolome, 28 ....................Tel.: 74 32 90

**PEDIATRA**
- Etxaniz ............................San Frantzisko, 36 ...................Tel.: 74 07 86
- Loiola ...............................San Frantzisko, 36 ....................Tel.: 74 07 96

**ODONTOLOGIA**
- Gerardo Natenzon ...........Santa Ana, 20 ...........................Tel.: 74 36 35
- Agustin Sanchez ............Antonio Arrillaga, 8 ...................Tel.: 74 37 47
- Antton Izagirre..................San Frantzisko, 31 ...................Tel.: 74 19 52

**BIHOTZA ETA BIRIKAK**
- J. Etxeberria .....................Santa Ana, 1 .............................Tel.: 74 22 75

**MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA**

**Akupuntura**
- J.J. Bastida.......................Arregitorre, 7 ...........................Tel.: 74 09 48
- Kemen Belardenda
  Agustin Bentoso ..........San Bartolome, 25 ....................Tel.: 74 40 31
- Nozki Belardenda
  Jose Maria Gorritxo .......Foruen Enparantza, 6 ..............Tel.: 74 18 61

**Naturopatia**
- Kemen Belardenda
  Mari Sol Saez ................San Bartolome, 25 ....................Tel.: 74 40 31
- Nozki Belardenda
  Jose Maria Gorritxo ....... Foruen Enparantza, 6 .............Tel.: 74 18 61

**Reflexoterapia podala**
- Kemen Belardenda
  Esther Zelaia ...............San Bartolome, 25 ...................Tel. : 74 40 31

**ATSak**
- Marta Diego Arrieta ..........Erretxindi, 2 ..............................Tel.: 74 02 33

# Gloria Aranguren

Errekadista

● **Noiz hasi zinen lan honetan?**

◗ Hasera batean nere ahizpa Dorita hasi zen, duela 40 bat urte edo. Urte batzuk pasata ni ere hasi nintzen eta gero bion gizonak kamioiakin, "Transportes Beraseta" bezala.

● **Nola hasi zinen lan honetan?**

◗ Manuela errekadistia jubilatu zenean Doritari eskaini zion lana eta gero bion artean jarraitu genuen.

● **Zergatik Elgoibar-Donostia?**

◗ Alde batetik Manuelaren bidea jarraitzeko eta gainera orduan Donostia zelako zentrua.

● **Zein motako "errekauak" egiten dituzue?**

◗ Instituzioetako papeleoa, abokatuena, asesoriena, farmazietatik, erropa dendetatik... gero kamioiarekin paketeak, danetik.

● **Hasi zinenetik gaur egunera, zertan aldatu da lana?**

◗ Haseran erropak erostera, ofizinen jiroak, haziendako pagoak, Seguritate Sozialekoak, desplazamenduak... dena Donostian egin behar zen; gaur dana hurbilago eta erretzago dago.

● **Aurrerapenak ez al doaz lanbide honen aurka?**

◗ Bai, eta asko gainera.

● **Goizean jaiki eta zer gustatuko litzaizuke entzutea irratian?**

◗ Lana sartu dala eta paroa jeitsi.

● **Zein da gustukoen duzun abeslaria?**

◗ Euskal abesti zaharrak ditut gustukoen; ez izen konkretu bat.

● **Aste Santuan elizkizunak jarraitzen al dituzu?**

◗ Bai, beti joan izan naizen bezala.

● **Honelako tradizioak mantentzearen aldekoa al zara?**

◗ Bai, nahiz eta orain modan ez egon, ni bai.

● **Denbora librean zer duzu gustukoen?**

◗ Gutxi daukat baina, baserrira joatea, gantxilloa egitea...

● **Nora joango zinateke hilabete bat pasatzera?**

◗ Toki asko nahi nuke ikusi, baina zerbait trankila. Neri Donostia asko gustatzen zait.

● **Udaberriaren etorrera igarri al duzu?**

◗ Ingurua zela argitxu dauan, poztasuna, bai igarri dot.

BELEN ARRIZABALAGA

## ASTE SANTUA, ERLIJIOA ALA OPORRAK?

**DOINUA:**
Aizak hi mutil mainontzi

Gure helduen oporra
otoi kontuan gogorra
gazteok berriz ordaindu behar
hobby-aren zorra
batzuek mendi tontorra
besteek kriston mozkorra
gehiegikeri guztiek dute
hondamen bizkorra. (BIS)

Ireki bertsotan beda
hitzak egiten du hega
opor luzeak ditugu eta
kontuak atera,
beraz erditik atzera
gure hobby-aren aukera
erlijioa gogoan hartu
erditik aurrera. (BIS)

JOSU GUENETXEA

## Villamayor de Markina-Elgoibar

■ Gaurko Elgoibar, aintzinan Markina Yusokoa deritzaion bailarari zegokiona, Villamayor de Markina deiturarekin sortu zen.

■ 1346ko abenduaren 20an, Alfonso XI erregeak Olasoko monastegiko lur eremuan, hiri harresitu bat eraikitzeko baimena eman zien ordura arte sakabanatuta bizi ziren aitonen seme eta nekazariei.

■ XV. mendearen erdi aldean hasi ziren Elgoibar izena erabiltzen, dokumentuetan irakur daitekenez.

■ Garai zail haietan segurtasuna eta defentsa bilatzen ziren eta dudarik ez dago Elgoibar ere gotorleku (fortaleza) itxura emanaz eraiki zela.

■ Mendebaldetik Deba ibaia zen defentsa naturala. Ekialde, ipar eta hegoaldetik harresiz inguratua zegoen eta Ubitarte, Ermuaran eta Errebaleko ateen bidez isten zen.

■ Oinplanoak lauki luze forma zuen, Feria (gaurko Errosario) eta Ermuaran (S.Bartolome) kaleek ibaiaren trazaketa paraleloa jarraitzen zutelarik. Kale bietako ateak irudi banaz apainduta zeuden, S.Anton eta Sortzez Garbiaren Andra Maria.

■ Kalegoengo eta Barrengo plazak nabarmentzen ziren, gaur egun Foruen eta Nafarroako enparantzak direnak. Kalegoenen Olasoko dorretxea altxatzen zen eta Barrengo plazan Altzolakoa.

■ XVI. mendean bazegoen San Lazaro ospitala eta mende horretan eraiki ziren San Frantzisko eta Santa Klarako komentuak.

■ XVIII. mendean Olasoko dorretxea hirigune oso esanguratsua bilakatu zen, eta Kalegoengon, aurretik zeuden hainbat eraikuntza bota eta berriak altxatu zituzten, gaur egun ezagutzen ditugunak, hain zuzen ere.

■ XVIII. mendearen azken laurdenean Bilbo-Donostia eta Bergarako errepideak eraiki ziren. Geroago Markinarakoa eta Azkoitirakoa. Hartara, gure herria ondo komunikatua gelditu zen inguruko herri eta bailarekin.

■ XX. haseran trenbideak garapen industriala bultzatu zuen, eraldakuntza nabarmenak sortuz: auzoak, industria berriak, zerbitzuak eta beste hainbat berrikuntza ekarri zituen Elgoibarrera ere.

PELLO ARRIETA

## Jose Ansola

### Txistularia (1911-1980)

● Elgoibarren jaio zen 1911ko martxoak 11an. Laureano Ansolaren semea. Gazte zela Markinara joan ziren bizitzera.

● 10 urterekin jo zuen lehen aldiz herrian.

● Lau anaiek txistulari talde ospetsua osatu eta diskarik ere grabatu zuten. Ansolatarrak izan ziren lehen aldiz Bach musikoaren lana txistuz jo zutenak, “Toccata eta Fuga, Re menorrean”.

● Bandako zuzendaria eta bigarren txistua zen.

● Tailerreko istripu baten ondorioz ezker eskua moztu behar izan zioten. Halere, esku artifizial batekin txistua jotzen jarraitu zuen.

● Markinako Musika bandako zuzendaria ere izan zen.

● 1980ko uztailak 25ean jo zuen azken aldiz. Juanito Gurrutxaga txistulariari egin zitzaion omenaldian parte hartu nahi izan zuen, “Uso txikia” piezarekin.

● 1980ko azaroaren 27an hil zen;

# BATA ala BESTEA

## Julian Azkue

*Azkue* argazkidendakoa



● **Inoiz izan duzun flashik handiena?**
◗ Nire aitaren heriotza.
● **Elgoibarko historian zein mementu izoztuko zenuke?** ◗ Langileak Sigmara joaten goizean goiz sirenak jo eta gero.
● **Zeri atera zenion zure lehen argazkia?**
◗ Ez zen argazki konkretu bat izan. Lagunekin mendira joaten nintzenean neuk ateratzen nituen argazkiak.
● **Jaietako argazkiek zein kolore izaten dute?**
◗ Gorria, zapiaren kolorekoa.
● **Txiki Eguneko bazkaria ala txaranga?** ◗ Sokamuturra lehenengo, txaranga gero eta ondoren bazkaria. Konpletoa izateko hiru gauzak behar dira.
● **Zein kolore sartuko zenioke zuri-beltzean ateratako zure bizitzako argazki bati?** ◗ Urdina.
● **Zure bizitzan lortu duzun objetiboren bat?**
◗ Ez dut sekula objetibo konkretu bat eduki epe luzera.
● **Zein da zure perfil ona?** ◗ Aurrez aurre begiratua.
● **Zeri aterako zenioke erretratu bat?**
◗ Desagertu diren lanbide zaharrei buruzko argazkiak ateratzea dut gustuko.
● **Zezenari ikusi izan al dizkiozu adarrak gertutik?**
◗ Bai, behin baino gehiagotan tokatu zait arazoei aurrez aurre heldu behar izatea. Nere lanbidean gainera beti zabiltza adarretatik, gauzak nola aterako diren ez dakizu azken mementura arte.
● **Zure bizitzako pelikula zenbat aldiz belatu zaizu?** ◗ Bizitzan gauzak ezin dira beti norberak nahi bezala egin, askotan belatzen da pelikula.
● **Zure izaerari radiografia bat ateraz gero, zein izango litzateke ikusiko genukeen lehen gauza?** ◗ Egia. Egia esatea gustatzen zait beti.
● **Zure gorputzeko zein atal "negativo" "positibatuko" zenuke?**
◗ Bat ere ez, konforme nago daukadanarekin.
● **Goizean goiz egiten duzuna pilak kargatzeko?**
◗ Ondo lo egitea nahikoa da.
● **Bizitzak duen argirik onena, politena?**
◗ Familiarekin gustura egotea polita da benetan.
● **Iluntasunak beldurrik eman al dizu inoiz?** ◗ Ez, ez dut uste.
● **1eko ala 3etako txupinazoa?** ◗ 3etakoa.
● **Juergarako egun bat?** ◗ Txiki eguna.
● **Zure bizitzako azken ordua zertan emango zenuke?**
◗ Familiarekin, paisaia eder batean.

## SAN BARTOLOME JAIAK

**DOINUA:**
Aita izenak

Astebetean ez da moztuko
jai giroaren kordela
baina sarritan azkar husten da
esentzi honen kupela.
Beraz tragoska eder batekin
ase dezagun sabela
aukera bada saiatu hortan
ezin da izan bestela
ta ezin dutenak jakin bezate
denon gogotan daudela.

Urtean zehar sufritu ondoren
herri osoak galanki
puntu batera iritsi gara
eta esan dugu aski.
Goza dezagun ahal den guztia
baina pasa gabe, noski
astebeteko neurri eza
denontzat dator egoki
herri bat herri ez baita inoiz
jai egiten ez badaki.



GERMAN MEABEBASTERRETXEA


GABIOLA GESTORIA

• GAIAK OROKORREAN
• GIDA BAIMENAK
• ARMABAIMENAK
• "AURORA" ASEGURUAK
• AHOLKULARITZA FISKALA
• AUTOMOBILAK ETA GARRAIOAK

San Frantzisko 22 • Tel. 74 07 97 • ELGOIBAR

magu's
ILEAPAINDEGIA
EDERGINTZA
San Roke 6 behea tel. 74 34 91

IDARRAGA
KAFEAK
Eguneroko errealdiak
San Bartolomiak!!
San Frantzisko 17. Tel. 74 05 33-36 39

JAIETAN
OILASKO GOXOA ETA
ETXEKO SAGARDOA
[redacted]
TABERNAN
*Ondo pasa jaiak!*
Tel: 74 03 87


Errosario 12. Tel: 74 16 48



San Frantzisko, 35 . Tel. 74 06 38

GARAY
HARATEGIA
URDAITEGIA
San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

*Ondo pasa Bartolo jaixak!*
ORAIKO
San Frantzisko 25
ELGOIBAR

# Aldare Nagusiko Erretaula

■ San Bartolome parrokiako aldare nagusiaren atzeko erretaula izango dugu oraingo honetan aztergai.

■ **Materialea**: zokaloak, aldareko mahaia eta mahai gaineko harmailak, Izarraitz mendiko harrobietako jaspe harriaz egin ziren. Gainontzeko guztia, iztuku zuriz egina dago. Kareorea eta bestelako nahasketak egiteko 1790. urtean herriko agintariek eta erretaula egileek kontratu bat sinatu zuten. Bertan zehazten zenez, Elgoibarko Momiola harrobiko harriz eginiko karea behar zen erabili bai eta ibaiko hondar garbia zein Urrestilako harrobiko igeltsua ere.

■ **Arkitektura**: elementu klasikoz osatua dago. Presbiterioan, eskenatokia bailitzan honako arkitektur-elementuak ikus daitezke, besteak beste, harmailak, aldareko mahaia, zokaloa, aldarearen alboetan bina zutabe eta beste bina pilastra.

■ **Eskultura**: Bi eskulturgune ikus daitezke.

■ Bi eskulturgune hauetan bi errealitate ezberdin baina osagarri irudikatzen dira: behean mundua, Bartolome Deunaren martiritza, apostolua zuhaitz enbor bati lotuta, aingeru batzuk laino artetik eszena ikusten duten bitartean. Goian, Bartolome zeruko aintzan, aingeruek osatzen duten perfekzio-zirkuluaren erdian dago eta apostoluaren gorputzetik zoriontasun argi izpiak irteten dira. Eskultura-multzo honen ezker eta eskuinean, tamainu naturaleko aingeru bana daude. Batek, erramua eta besteak koroa daramate, garaipenaren ikur gisa.

■ **Pintura**: eskulturek eta erliebeek kolorea dute errealismoa gehitzen diotelarik. Zutabeak, pilastrak, taulamenduak eta argi zipiak ere urreztatuak daude. Erretaularen arku itsuaren alboko gunea eta pilastren arteko tartea landarez apainduak daude.



■ Erretaula Erromako Haan maisuak diseinatu zuen eta egileak Francisco Ugartemendia eta Francisco Justiniani izan ziren.

■ Erretaula 1791.eko maiatzaren 11n amaitu zuten.

■ Estilo artistikoari dagokionean, XVIII. mendeko joera neoklasikoan egina dagoela esan daiteke nahiz eta badituen zenbait ezaugarri barroko ere.

PELLO ARRIETA



# Florencio Ansola

## Txistularia (1887-1973)



- Elgoibarren jaio zen 1887ko azaroaren 7an.
- Txanbolin txistularien laugarren belaunaldikoa, Silvestre Ansolaren semea zen.
- 1903. urtean, hamabost urte baino ez zituela, Eibarko Udal Txistularien Bandako zuzendari postua atera zuen azterketa gainditu ondoren. Berrogeita zazpi urte eman zituen eginkizun honetan.
- 1939. urtean Elgoibarko txistularien zuzendaritzaren ardura hartu zuen Florenciok bere anaia Laureanoren ordez. Eibarko eta Elgoibarko zuzendari izan zen 1950. urtera arte, urte honetan Eibarren jubilazioa hartu baitzuen. Ordudanik eta hil zen arte, txistua jotzen jardun zuen Elgoibarren.
- San Bartolome jaietan, urte mordoan jo zuen Florenciok txistua, sarritan Etxegiñarekin batera.
- 1973an hil zen azaroaren 21ean.

ARKUPE
TINDATEGIA
Ondo pasa Sanbartolo jaiak!
Foruen Enparantza 4
Tel. 74 00 91

Ametsa
Ondo pasa Jaiak! KAFETEGIA

# Gipuzkoako sei aizkolari onenek jokatuko

**Arratsaldeko 6,30etan gutxi gora-behera hasiko da San Migel auzoko Kalamua elkarteak antolatutako Gipuzkoako AIzkolarien Txapelketaren finala. Plaza Handian izango dira Gipuzkoako sei aizkolari onenak, Euskadiko Txapelketaren finalaren atzetik, bigarren txapelketarik garrantzitsuenaren finala jokatzeko. Txapelketa girotze aldera, Meabebasterretxea, Ziarda eta Azpillaga bertsolarien eta Trikitilari Eskolako neska-mutikoen jarduna izango da arratsalde osoan zehar.**

Gipuzkoako Txapelketaren kanporaketen ostean, sei aizkolari onenak sailkatzen dira finalerako. Aurten San Bartolome jaietan izango da finala. Topaketa garrantzitsua izan ohi da horrelako final bat, “ohore handia da Kalamua bezalako elkarte batek antolatu ahal izatea”. Duela bi urte Elgoibarren egindako Aizkolari Txapelketaren antolakuntzarekin oso gustura geratu omen zen Gipuzkoako Herri Kirolen Federazioa. Hortaz, Kalamua elkarteari eskatu dio hilaren 26an egingo den Txapelketaren antolakuntzaz arduratzea.

Finalean zein aizkolari izango diren jakiterik ez dagoen arren, puntakoak bertan izango direla esan daiteke; hala nola, Arrospide, azken sei urteotan Euskadiko txapeldun dena, Olasagasti, Peñagarikano, Erasun, Elorriaga eta Fausto Mugerza. Txapela eskuraut ahal izateko aizkolari bakoitzak 12 enbor ebaki beharko ditu. Ekinaldia ahalik eta denbora gutxienean burutzea lortzen duenak eramango du aurtengo Gipuzkoako Aizkolarien Txapela.

Orain arte, Deba Beheko herri kirolen jaialdia izaten zen Baserritarren Egunean. Herrikoak ezezik, inguruko trontzalariak ere, harrijasotzaileak, aizkolariak, kaskara biltzaileak... Txapelketa polita izaten zen arren, hamabi urtez antolatzen jardun ondoren, Gipuzkoako Txapelketak hartu du errelebua herri kirolen atalean.



Finalean sei aizkolari onenak izango dira.

LURRINDEGIA
Ondo pasa Jaiak!
San Frantzisko, 2. Tel. 74 02 99

Richi
Zorionak eta ondo pasa jaiak!
ILEAPAINDEGIA ▪ DEPILAZIOA ▪ MASAIA
ILERAKO TRATAMENDUETAN ESPEZIALISTAK:
Koipea ▪ Kaspa ▪ Erorketa
Errosario 6 - 1. Tel. 74 30 11. ELGOIBAR

ERREZABAL
taberna
Ondo pasa Jaiak!
Ermuaran-bide. Tel 74 26 33. ELGOIBAR

JOSE ANTONIO ileapaindegia
•Hies-a eta hepatitisaren kontrako tresneriaz horniturik. •"Tresneria zorrotzekin arreta handiena eskatzea gomendatzen dugu bezeroari.
•"Kerastase" tratamenduak.
Errosario, 30. Tel. 74 14 92. ELGOIBAR



SAN BARTOLOME JAIETAN

ALAITASUNA ETA ANAITASUNA



ESOZIA JATETXEA

*Ospakizun berezietarako toki aproposena.*

*Zugandik oso gertu!*




Esozia auzoa z/g - ☎ 75 10 01 - SORALUZE



JUARISTI Aroztegia

Egur-aluminiozko **UNIFORM** leihoak, egurrezko leihoen edertasuna eta aluminiozkoen teknika batzen ditu.

- Ez dauka mantenu beharrik
- Haizea eta urarentzat isolatua
- Kolore efektu ikusgarriak
- Betirako leihoak

*Ondo pasa jaiak!*

Arotz, kontratista eta etxe berrikuntzetarako mundiala.

BULEGOA:
Ubitarte, 2 behea. Tel.: 74 13 33

LANTEGIA:
Santa Ana, 16. Tel.: 74 29 94

# ELGOIBAR HIRIKO FUTBOL TXAPELKETA

Urtero bezala aurtengo San Bartolome jaietan ezin futbolak hutsik egin. Duela zortzi edo bederatzi urte ekin zion C. D. Elgoibar Elkarteak txapelketa antolatzeari eta beti, Elgoibar eta Eibar taldeen arteko norgehiagoka izan da txapelketaren oinarria. Ohi denez, bezpera egunean, hilak 23, jokatuko da lehendabiziko partidua. Mintxetako zelaian arratsaldeko 6etatik aurrera C.D. Elgoibar eta Azpeitiko Lagun Onak taldeak arituko dira. Azpeitiarrak preferentetik hirugarren mailara igo dira aurten, hortaz, txapelketan parte hartzera gonbidatu ditu Klub Deportiboak. Hurrengo partidua, hilaren 26an, larunbata, eibartarren eta ondarrutarren artekoa izango da. Bi partiduen emaitzak erabakiko du nortzuek jokatuko duten hilaren 28ko finala. Irailaren 3an hasiko den ligarako talde bakoitzak emateko daukana neurtzeko aukeraezin hobea izango da. Onenak irabaz dezala!


C. D. Elgoibar

TXENTXO


S. D. Eibar

XABIER
ILEAPAINDEGIA
Eskatu eguna eta ordua
Ondo pasa jaiak!
San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

Merino zapatak
UMEENTZAKO ETA GAZTEENTZAKO OINETAKOAK
Ondo pasa jaiak!
Errosario 11/12 behea • ☎ 74 34 35 •

CRISTALERIA ELGOIBARRESA C. B.
Bidriera artistikoak
Obra komertzialak
Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89

Jose Ignacio Ulacia Echeverria
AROZTEGIA- OBRAK- IGELTSARITZA
Santa Klara, 10-1
Tel: 74 05 47
Etxea: Santa Ana, 30
Tel: 74 04 68

# Gora begiratu eta... oooh!

Areatzako Astondoa eta Pirotecnia Zaragozana etxeen suzko errobera eta fantasiazko txafliguak San Bartolome jaietako gauetako zeru iluna argitzen ikusiko ditugu aurten ere. Elgoibarren ez daukagu Donostiako Kontxaren parekorik baina lepoa okertu, zerurantz begiratu eta aho zabalik Ohh! luzeak botaraziko gaituzten su artifizialak ikusteko, Deba ibaiaren bazterrak balekoak dira, Kontxakoak bezain dotoreak ez izan arren. Aurten, ordea, aldaketa gertatu dira txafligu eta koheteak botatzeko lekuari dagokionean. Aurten Leruneko futbol zelai zaharrean antolatuko da su artifizialak jaurtitzeko behar diren tramankulu etab.ak. Orain arte, King-Kongeko zubitik eta Urasanditik jaurtitzen zituzten. Azken urteotan gertatutako istripuen ondorioz izan da leku aldaketa. Suen inguruan jendetza handia biltzen zen. Etxebizitzak ere oso gertu daude, horrek dakarren arriskuarekin. Hortaz, aurten lehendabizikoz, Lerunetik egingo dute jaurtiketa. Suak ikusteko Lerunera bertara joan beharko da, baina Melitongo zubiaz handik ez da igarotzerik izango.



AZPILIKUETA

## Hiru belaunaldiko tradizioa

Bizkaiko Areatzan du egoitza Pirotecina Astondoa S.A. suzokorroberen fabrikak. 1885. urtean Villaron jaurti zuten estraineko kohetea.

Koheteak egiteari ekin zion Astondoak. Ostean trakak etorri ziren. Gerra garaian egin zuten bidaia bati esker, karkasak eta baliabide piroteknikoekin hasi ziren, su artifizialen erakustaldietan derrigorrezko elementuak direnak. Ordudanik piroteknikoen hiru belaunaldi igaro dira, gaur egun, Eustaquio Astondoa da gerentea, sortzaile izandakoaren iloba, hain zuzen. Berrikuntzen artean, “Valentziako zarata” deritzon osagaia da merkaturatu den azkena. Euskal Herriko jai gehienetan izaten dira Astondoako fantasiazko koheteak, bengalak, bonbak, suzko zezena etab. eta nola ez, Bilboko, Gasteizko eta Donostiako jaietan ere, ezin hutsik egin.

DORI Urdaitegia

Ondo pasa Jaiak!
Erro[illegible] 11 92

Biak
ileapaindegia
San Inazio 4, Tel. 74 27 25


MALAPE TABERNA
Disfruta itzazu herriko jaiak!

AMISTAD
TABERNA

# IBAI gimnasioa

Santa Ana kalea, 46 Tel: 74 07 93 / 74 27 06

HEZKUNTZA FISIKOA PROFESIONALEN ESKUETAN



- ❒ Judoa
- ❒ Taekwondoa
- ❒ Wing-Tsun
- ❒ Aerobic
- ❒ Gimnasia erritmikoa
- ❒ Muskulazioa
- ❒ Mantenimenduko gimnasia
- ❒ Haurdunentzako gimnasia

MUSKULAZIO IKASLEENTZAKO PREZIO BEREZIAK

IKASTARO BERRIAK IRAILETIK AURRERA
Muay-Thai eta monitoreentzako ikastaroak (Masaia, Hezkuntza fisikoa, Aerobic, Muskulazioa).





**San Bartolome jai zoriontsuak elgoibartar guztioi!**



IRAKASLE ELKARTEA

# ZEZENBIDE

San Frantzisko 43,
☎ 74 27 20

auto-eskola

San Bartolome jaiak abuztuaren 23tik 28ra bitartean ospatuko dira aurten. Bezpera, San Bartolome Eguna, Txiki, Baserritarraren Eguna, Gazteriaren eta Umeen Eguna... Azken urteotako jaien nondik norakoen berri ematen dugu luzaro ale honetan. Aspaldiko San Bartolome jaiak nola ospatzen ziren jakin nahian, jaien egitarau zaharren artean begira egon gara, eta hara hona aurkitu ditugun bitxikeriak eta gaur egun jadanik burutzen ez diren hainbat ekintza.

**1924:** Elgoibarrek bost mila biztanle zituen urte honetan lau eguneko jaiak izan ziren. San Bartolome egunean goizeko 6etan hasi zen lehen ekitaldia, txistularien diana hain zuzen. Sasoi erabat ezberdina zela argi dago, Cuencako Errejimentuko banda militarra izan baitzen jotzen. Txirrindulari lasterketa erabat bitxia korritu zen jai hauetan: C. D. Elgoibarrek antolatuta, “dortoka pasura” korritutako lasterketa.

**1952:** Burgoseko Injinerutza Akademiako Banda izan zen Elgoibarren, militarra hau ere. Udaletxean “ohorezko ardoa” emango zitzaiela iragartzen zuen jai egitarauak. Txiki Egunean igeriketa eta kukaña txapelketa egin zen Deba ibaian eta gizonprobak ere egon ziren Muxillo eta Irunaga Txikiren artean. Urte honetan boxeo borrokaldiak burutu ziren merkatu plazan. Eta ez hori bakarrik, aeromodelismo erakustaldiak eta zezenketak ere bai, toreatzaile eta guzti!





**1955:** Zaragozana piroteknia etxearen su artifizialak izan ziren urte honetan bai eta maila nazionaleko boxeo borrokaldiak ere. Gallito de Eibar toreatzaileak zezenak toreatu zituen, eta Baserritarren Egunean “loreez apaindutako balkoien” sariketa antolatu zen.

**1963:** Urte honetan besteak beste, joko herrikoiak, haurrentzako “Colorín y sus muñecos” txotxongilo saioa eta Baserritarren egunean, Errosario kalean zegoen “Cine elgoibarrés” delakoan ganadu feriari buruzko pelikulak filmatu ziren. Udaletxeak etxeetako balkoiak apaintzeko eta atontzeko eskatzen zuen jai egitarauan.

**1967:** Gaurkoen antz gehiago dute 1967ko jaiek. Mauxitxa txarangak ezezik, Tolosako “Peña Alcoyano”k ere alaitu zituen jaiak. Anekdota modura, Foruen Enparantzan Musika Bandaz eta txistulariez gain, tokadiskoaren laguntzaz ere burutu zen erromeria. Anekdotak beti anekdota!





PATXI harategia

Ondo pasa San Bartolome jaiak!





San Bartolome, 30 • Tel: 74 35 04 • ELGOIBAR

# Herriko Dultzainero gazteak

**Iazko Santiago egunean etorri zitzaien dultzaina jotzen hasteko ideia. Abuztuaren erdi aldera lehendabiziko kontaktua izan zuten entsaiu batean Txomin Mujikaren eskutik. Estrainekoz La Guardian jo dute aurtengo maiatzean, "Gaiteroen egunean", baina Elgoibarren aurkezpen ofiziala Trinitate jaietan egin zuten. Dultzaina menperatzeko "urteak eta urteak" falta zaizkiela aitortu diguten arren, 15 bat piezak osatzen dute dagoeneko euren errepertorioa. Elgoibarko Txomin Mujika, Ricardo Gorriti eta Bittor Zubiaurre dultzaineroen "errelebua" hartzeko asmorik ez duten arren, hiru gazte hauek Elgoibarko Dultzaineroen "semetzat" dituzten beraien buruak.**



Goizeko Dianetan edo buruhandi eta erraldoiekin kalejiran, dultzaina beti dago jaiekin estuki lotua. Binomio perfektoa osatzen dute. Gorka, Koldo eta Jonek osatzen dute dultzaineroen hirukotea. Koldok txikitatik izan du gogoko dultzaina baina beste biei 'estridentea" iruditzen zitzaien dultzaina, jende gehintsuenari bezala. "Instrumentu bakoitzak bere ezaugarriak dauzka. Dultzaina kalean jotzen da, jaietan beti. Jendeak ez zaiola gustatzen esaten du baina dultzaina entzutean gauza berezi bat pizten da gorputz barruan, jaien kolore-gamaren barruan, beste kolore bat gehiago da".

Izenik duten galdetu diegu eta ezetz erantzun beraiek. "Normalean herriaren izena hartzen dute dultzaineroek. Elgoibarren lehendik badagoenez talde bat, kartetan eta horrelakoetan 'Elgoibarko Dultzaineroak II' jartzen dute".

### Elgoibarko Dultzaineroak II

- **Partaideak:** Gorka Regil tanborra, Koldo Galdona dultzaina eta Jon Zabala dultzaina.
- **Noiztik dultzaina jotzen?** Urtebete eskas.
- **Bandan zer jotzen duzue?** Tronpeta (Jon eta Koldo) eta perkusioa (Gorka).
- **Dultzainarekin jotzeko pieza bat:** "Dicastillo".


ZELETA Barazkiak
KALITATEA ETA ZERBITZUA
Baserritik erosketako poltsara zuzenean

JATORRIZKO KALITATEA
Zorionak!
ZELETA BASERRIA ☎ 74 30 22 San Migel auzoa - ELGOIBAR

NOZKI
DIETETIKA KONTROLA
Foruen plaza, 5
Tel. 74 08 78

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

Elgoibarko PSE-EEk
San Bartolome jai
zoriontsuak opa
dizkizue herritar guztioi.

ALTZARIAK-DEKORAZIOA

Santa Ana, 4 eta 6
Tel: 74 12 34
ELGOIBAR

Ondo pasa
San Bartolome

Zure etxea dekorat
aukera zab
San Bartolome, 2

dekorazioa

# Gutxi zelakoan edo...



Aurtengo San Bartolome jaik sekula baino antolatzaile gehiago izango dituzte. Udalaren egitaraua ezezik, Madalan izango ditugu aurten ere txoznak. Eta ez hori bakarrik, gutxi zelakoan edo, herriko tabernariek iraileko lehen sapatura arte luzatu nahi izan dituzte jaiak.

Hainbat txozna kokatuko dira Madalako parkean: Gestoraren, Antimilien, Zazpiki Irratiaren eta Jarrairen txoznak. Iaz bezala, ekitaldi mordoa antolatu dituzte txoznen inguruan. Bertsolariak, txalaparta, Txiki Eguneko Gestoren omenaldi-bazkaria, kontzertuak etab. Tabernariek ere beraien aportaziotxoa egin nahi izan dute San Bartoloetarako. Herriko 30 taberna bildu dira irailaren 2an, larunbata, San Bartolome jaietako azken eguneko ekitaldiak antolatzeko. Egitasmoa arraskatsua izanez gero, lantzean behin, data garrantzitsuetan edo, ekitaldiak antolatuko lituzkete tabernariek.

## TABERNARIEK PRESTATUTAKO EGITARAUA

**IRAILAK 2,**

**LARUNBATA**

**Arratsaldeko 5etan:** “Altxorraren bila” OHOko haurrentzat.

**Segidan,** partehartzaile guztientzako txokolatada.

**Arratsaldeko 8etan:** Mauxitxarekin kalejira.

**Gaueko 11,30etan:** Rock kontzertua madalenako parkean: *Potato* eta *Full Dream*.

**Gauerdian:** Plaentxi bikotea eta Beti-Jai orkesta Plaza Handian.


Maria Urizar ileapaindegi mistoa

JAI ZORIONTSUAK PASA ITZAZUE!

Errosario 9-1ezk. ☎ 74 44 89 ELGOIBAR




MEKANIZATUAK

Olaso kalea 27 eta 54 A ELGOIBAR 20870

Tel/Fax: 74 42 84

Zur ta Lur

ALTZARIAK

Dekorazio proiektuak

Altzari integralak

Altzari modernoaren denda berria

Eskualdeko bakarra bere sektorean

EIBAR
OSASUNDEGIA

*Urkizu Pasealekua, 11.*
*(Orbeako Dorrea, lehenengo solairua).*
*Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04*
*EIBAR*

1- Alergiologia
2- Kardiologia
3- Zirugia
4- Zirugia maxilo faziala
5- Dietetika eta nutrizioa
6- Dermatologia
7- Ginekologia
8- Laborategia
9- Barne medizina
10- Ortodontzia
11- Foniatra
12- Otorrinolaringologia
13- Pediatria
14- Sikiatria
15- Radiologia
16- Traumatologia
17- Urologia